



BESAMOTZ

1. Zer iruditu zaizu deigarriena?
2. Egokia iruditzen al zaizu “betiko legea”? Zergatik?
3. Zeintzuk dira betiko legearen ondorioak txikientzat eta adinekoentzat?
4. Zer uste duzu? Buruzagi batek erabakiak bakarrik hartu behar dituela ala bere jendearen iritziak entzun behar dituela?
5. Nolakoa izan behar da buruzagi on bat? Zer ezaugarri izan behar ditu?
6. Zer da zuretzat talde lanean aritzea?
7. Zeintzuk dira talde lanean aritzearen abantailak?
8. Zure ustez, nola lortu da betiko legea aldatzea? Nortzuk lortu dute?
9. Besamotzek beso bat txikiagoa izateak, nolako eragina izan du bere bizitzan?
10. Ikusirik Besamotzen aitaren hasierako portaera berarekin, zer iruditzen zaizu Besamotzek bere aita barkatu izana?
11. Zure ustez, zer dago aitaren portaera horren atzean?
12. Zure ustez, zergatik Siulek ez du aldatzerik planteatzen bere familia galdu arte?

13. Zertan datza Besamotzen taldearen lege berria?

14. Gaurko gizartean nolakoa izan beharko zen lege berri bat?

Yolanda Chartek sortua

Psikologia aplikatua eta Inteligentzia emozionala

[Www.gaitasun.net](http://www.gaitasun.net)

JARDUERA

Harrigarria bada ere, iraganean emakumeek ez zuten bozkatzeko eskubiderik. Buruzagi politikoek, gizonezkoak noski, argudiatzen zuten legea horrela zela betidanik eta horrela izaten jarraitu behar zuela. Asko kostatu zen lege zahar hori aldatzea.

Gai honi buruz informazioa lortu eta idazlan bat egin:

Beste gairen bat aukera dezakezu eta aztertu, aldaketa baten bidez persona askoren bizitzak hobetzea ekarri duena. Adibidez, Estatu Batuetan 1965ean onartu zen arraza beltzeko pertsonentzat bozkatzeko eskubidea.

Izenburua ondorengo izan daiteke: Azkenean aldatu da lege zahar bat. Nahi izanez gero, zure iritziz gaur arte betidanik egon den zerbait aldatzeko beharrari buruzko hausnarketa batekin buka dezakezu idazlana.